

## Esker ona, seme-alaben biziagatik

“Zuek zarete munduarentzat gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, botatzeko baizik eta jendeak zapaltzeko.

Zuek zarete munduarentzat argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen hiria. Kriseilua ere ez da pizten ontzipean ipintzeko, argimutilaren gainean baizik, etxeko guztiei argi egiteko. Era berean, zuen argiak denen aurreran egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten”.

Mateo 5, 13-16



Eskerrik asko, Aita Jainkoa, gure eskuetan ipini duzun bizi honengatik. Lagun iezaguzu ... (*haurren izenak esango ditugu*) hezteko eta laguntzeko eginkizun eder honetan. Zure laguntzaz, piz dezagula beraiengan Zu ezagutzeko nahia.

Gure hurkotasunean, gure zainketetan eta berari diogun maitasunean, Zeu ikus zaitzala, gure zoriona eta poza nahi duen Aita-Ama bezala. Emaiguzu, Aita, indarra, pozez bizi dezagun ama eta aita izatearen esperientzia. Amen

Abestia... *Jesús está en mi corazón, en tu corazón, en el corazón de todos.  
Jesus dago nire bihotzean, zure bihotzean, bihotz guztietan*

(Hemen entzun dezakezu: <https://www.youtube.com/watch?v=-BaDub1loUs>)